

TXOMIN PEILLEN

“Bake zaletasuna Algeriako gerrak eman zidan”

Txomin Peillen euskal kulturaren langile porrokatua da. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria eman zitzaion 2009ko edizioan, eta horrela, bere opera omniarengatik saria jaso duten pertsonalitateen zerrenda aberatsean dugu.

Pariseko zikoinak Parisen utzi zintuen 1932an... Pariseko euskalduna, beraz.

Hala da, Montmatreko mendi gainean utzi ninduen, 1932ko azaroaren 17an. Gurasoak ekonomia arazoengatik Parisera joanak ziren, bakoitza bere aldetik, eta han egin zuten topo, baina lehendik ere elkar ezagutzen zuten, ama Larrainekoa baitzen eta aita Ligikoa, hots Andozer ibarrekoak.

Zazpi urterekin heldu zinen lehen aldiz Euskal Herrira, Zuberoara...

Gerra hasiera zen eta bi urte t erdiz egon nintzen. Gai izan nintzen euskara ulertzeko baina ez mintzatzeko. Amak formula berezia erabiltzen zuen hizkuntzarekin: euskaraz zuzentzen zitzaidanean euskaraz erantzuten nion bera frantsesera pasatzen zen. Zuberoan natura deskubritu nuen, gero biologia ikastera eraman ninduen.

Gerra bizi izan zenuen hurbildik...

Amaz izutua bizi zen, aita erresistentziako propaganda banatzen ibiltzen baitzen. Erresistentzia aktiboan zebilen. Guk umeok ere parte hartu genuen barrikadak egiten... Gerra ondoren, berriz, gosea izan zen kolpatu gintuena.

Aita Joannes komunista, ama Maddalen euskaldun fededun... Semea, Txomin, ateo?

Aitak *L'Humanité* irakurtzen zuen, eta igandeetan saldu egiten zuen kaleetan; ni ere zaletu nintzen hura irakurtzera. Ni ateo izateak ez dauka zer ikusirik aitaren militantziarekin. Bizitzak egin nau ateo...

Nola sortu zen zugar euskal kulturarako grina?

Bi arrazoik bultzatu ninduten: alde batetik, anaia eta biok deskubritu genuen etxean “En France” liburua, Onesime Reclus geografo biarnesak idatzia, euskara XX mendean hil egingo zela zioena, eta gaineratzen zuen literaturarik gabe hizkuntza bat hiltzea birritan hiltzea zela. Bigarren arrazoa, Andima Ibinagabeitia izan zen. Biek “bortxatu” ninduten euskaraz idaztera.

Txomin Peillen, Paris... horrek guztiak Jean Mirande aipatzera garamatza...

Andimaren bidez ezagutu nuen Mirande. Baina Mirande niretzat porrota izan da, ez bainuen lortu bera faxismotik urruntzea eta bere burua bizirik edukitzea. Lagundu nahi nion... baina ez zidan kasurik egiten! Mirande etsimendura erortzen zen, sarri. Hori nire lehen porrota izan zen. Badut beste bat, Alfonso Irigoyenekin, ez bainuen laguna baketu ahal izan, haserrekorra zen-eta.

Zure formazio profesionalerako Biologia hautatu zenuen... Zer dela-eta?

Interesatzen zitzaidan giza gorputzaren funtzionamendua eta, aldi berean, izadiaren funtzioa. Horrez gain, etnologia ere ikasi nuen, hain zuzen etnobiologia eta etnomedikuntza. Uztartzen saiatu naiz biologia eta etnologia, euskaraz.

Badirudi Algeriak markatu zintuela sakon...

Hango gerran gauza gogorak ikusi nituen. Osasun zerbitzuan ibili nintzen soldadutzan. Gurutze Gorriko karta batekin ibiltzen nintzen, erizain nagusi bezala. Arabiera ere ikasi nuen, modu xume batean. Eritasun anitz tratatu behar izan nituen: tuberkulosia, tifusa, begietako trakoma...

Baina horren guztiaren gainetik, Algeriak bake zaletasuna eman zizun...

Bai, hala da, Algerian tortura zer den ikusi bainuen. Zakurrak balira bezala tratatzen ziren presoak. Debeketzen ziguten haiek



medikuntza egitea. Hortik heldu zitzaidan bake zaletasuna.

Euskal Herrira, bizitzera 1982an etorri zinen...

Uste nuen ikerketa lanak euskaraz egiten jarraitzeko, Euskal Herrian egon behar nuela. Euskal katedra sortu zuten Baionako Fakultatean, eta Euskara eta Euskal Zibilizazioa delako katedraren arduraduna izan naiz 1998ra arte.

Hortik irradiatu duzu zure lana, ozeanoz bestaldera ere eraman zaituena...

Hego Ameriketako euskal diaspora ikertu dut Argentinan eta Uruguayan. Bi estatu horietan ditut oraindik ere senitartekoak. Montevideoko Unibertsitatean egin dut lan, eta han emandako hitzaldiekin liburu bat egin dut, “Bosquejos vasco uruguayos”

Herriarrekiko zure konpromezuak eraman zintuen politikara... Abertzalea zara, eta militantea...

Pesimista naizelako sartu nintzen politikan. Optimistek kalte egiten dute politikan, eta ni beti ibili naiz kritikoa. Orain, ordea, ez naiz militante. Agian apur bat anarkista naizelako, subiranotasuna eta independentzia hitzek min apur bat egiten didate. Amets gehiegi egin dugulakoan nago.

Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona Saria eman zizun 2009an, zure opera omnia dela-eta. Harro sentitzeko motiborik baduzu, ezta?

Ez nintzen idazle, ikerlari, euskaldun, abertzalea izatera lagundu nauten laguntzarik gabe. Ez banitu ezagutu zenbait pertsona –Ibinagabeitia, Mitxelena, Aresti, Haritshelhar, Apalategi...– auskalo non egongo nintzen.

Josemari Velez de Mendizabal

Elkarrizketa osoa: www.euskonews.com/533z/bk/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

VERÓNICA DOMINGO

Argentinara joandako bertsolari aparta

Ipparragirrek zioenez “Gazte-gaztetadik herriitik kanpora” eta hala egin zuen Pello Mari Otañok.

Zizurkilen jaioa, oso gazterik 1898an Argentinara joan zen, han hil zen Rosario hirian 50 urterekin 1910ean. Pello Mariren arbaso guztiak bertsolariak omen ziren, gizonak nahiz emakumeak, baina Pello Mariren seme-alabak Argentinan heziak, eta han ez zegoelako enparantzetan bertsok botatzeko ohiturarik, familiaren tradizioa eten egin zen.

Otañok Argentinara joatea erabaki zuenean, bertsolaritza puri-puritan zegoen Euskal Herrian, mementorik onenean, horregatik garai hartako bertsolariak Pello Marik erabakitakoa jakitean harriturik ez ezik oso goibel ere geratu ziren. Pello Mariri agurra emateko Pasai Donibaneko portuan bildu ziren itsasoratzeko unean, eta bertsosen bidez agurra eman zioten.

“Baina bihotzak dio zoaz Euskal Herrira” eta maiz bueltatu zen Euskal Herrira Pello Mari, bizpahiru aldiz, baina berritri bizitzera inoiz ez. Halaber, itzultzeetan Donostiako Lore Jokoetako Lehiaketa batzuetan irabazi zuen.

Argentinara heldu bezain laster, han bizi ziren euskaldunekin elkartu eta hango euskal giroan sartu zen. 1899an argitaratu zuen hango “Ekin” argitaletxeak Pello Marik idatzitako “Gu ta gutarrak” bertsoa, eta 1904ean “Elkar” argitaletxeak Euskal Herrian argitaratu zituen Pello Mariren bertso guztiak.

Goian aipatu dugun araber, Otaño hiru aldiz joan zen Argentinara, eta hezurak Euskal Herrian uzteko nahia adierazi arren han utzi

behar izan zituen azkenik. Bizimodua atera beharra eta herrimin sakona elkarrekin lotuta etorri zitzaizkion: Argentinako panpan artzain edo Buenos Airesen euskara-irakasle zegoela ere, tristura horri ezin izaten zion aurre egin. Ezin modu ederragoan adierazita dago oroimin hori “Amerikako panpetan” olerkian..

Buenos Airesko “Laurak bat” euskal etxean lehen Euskara klaseak eman zituen Otañok 1904an, Argentinako aurreneko euskara irakasle bihurtuz, hain zuzen. Horretaz aparte, bertsolaritzan jarraitu zuen bururaturiko bertso guztiak idazten, zeren han ez zegoen non abesterik.

Gaur egungo bertsolariek begirune handia daukate Pello Marirengan, bertso guztiak idatzi baitzuten. Pello Mari maisutzat hartzen dute, eta beraientzat oso garrantzitsua da antzinako bertsoak eskuratzeko, olerkiaren aldetik balio handikoak direlako.

Horregatik esan liteke Pello Mari bertsolaria ez ezik primerako idazlea ere izan zela. Bertsogintzarako estilo berezia zuen Pello Marik, azken puntu beti berdina erabili ohi zuen, eta horrek behartuta errima berbera sei bertsoetan, eta hala ere sinetsi ezinezko indarra eta kalitatea jartzen zituen sorta osoan.

Oro har, Pello Mariren bertsoek euskararen egoera eta atzerriko euskaldunen bizitzari buruz kontatzen zuten, euskararen egoeraz oso kezkatuta baitzegoen. Baina politika ere agertzen da tarteka Pello Mariren bertsoetan; horren adibidea da, besteak beste, Pello Mariren “Zazpiak bat” bertsoa, abertzaletasun politikoak bere formulazioak finkatu baino lehen, euskal idazleen artean zabaldua zegoen Euskal Herriaren

batasunaren ideia, hizkuntz komunitatearen sentimenduak ematen duen kontzientziari esker. Aipatzekoa da Pello Marik idatzi Kubaren independentziari buruzko bertsoa, bere askatasuna lortzeko borrokatzen zuten herriak maite baitzuten, eta zer esanik ez Argentinari buruz, 1910ean –Pello Mari hil zen urte eta hilabete berean– Argentinak ospatzen zuen bere independentziaren mendeurrena, eta Pello Marik honako bertso hau eskaini zien argentinarrei:

“¿Zer gertatzen da Buenos Airesen, zer Argentina guztiyan?
zeri zor zaio alaitasun au
gure bigarren erriyan
ta gure seme euskal kumeak
jaio ziraden tokiyan
¡A nola denok ez pozkidatu
gaur ospatzen dan eunkiyan!

Maiatzak ogei ta bost zituhan
jegun goguangarriya!
¡Ura odolen irakitea,
ura biyotzen larriya!
Sortaldetikan eguzki gozo,
paketsu, maitagarriya
igo zan geldi-geldiro, emen
ixuriz bere argiya”.

Aurten 200 urte betetzen dira Argentina Espainiaren menpetik askatu zenean, orain 100 urte Pello Marik idatzi zituen bertso hauek, eta handik gutxira hil zen. Horregatik, aurten ere Pello Mariren heriotzaren mendeurrena gogoratzen dugu –Argentinaren independentziarekin batera–. Euskal Herrian nahiz Argentinan hainbat ekitaldi antolatuko dituzte maiatzean zehar, Argentinatik etorritako biloba batek parte harturik.

Bertsosen bitartez Euskara eta askatasuna zabaldu ez ezik aldarrikatu ere egin zuen Pello Marik, eta Pello Mariren legatua bizirik dago, bai bertsoetan bai olerkietan, bai ahoan bai bihotzean, eta hala erakutsiko digute egungo bertsolariek maiatzean Zizurkilen.

Paperetik sarera

www.euskomedia.org



Mirando atrás, adelante, arriba y abajo

El proyecto Auñamendi Eusko Entziklopedia (AEE) es una realidad presente con mucho futuro. Integrado con el Sistema Euskomedia de Eusko Ikaskuntza da acceso a 150.000 voces, 60.000 imágenes y medio millón de documentos. Casi a la vez que se ponía en servicio la web www.euskoentziklopedia.org, abrió sus puertas el nuevo Museo del Carlismo en Estella. Hemos cruzado ambos acontecimientos, preguntando a la AEE por la información actualizada sobre el Carlismo. El resultado es un texto completísimo y didáctico, en euskera y castellano, que este mes seleccionamos en la ventana ATEJOKA de Euskomedia.

Mirando al futuro evocamos el pasado. **Vitoria-Gasteiz** cumple 30 años como capital administrativa de Euskadi. Con ese motivo, Javier de la Fuente Junquera, investigador especializado en Historia Social y Modernidad en la Vitoria contemporánea, pasó por los espacios radiofónicos de Eusko Ikaskuntza. Hemos colgado la entrevista emitida por Radio Euskadi el 21 de abril en la que hace repaso a la evolución de la capital alavesa desde mediados del siglo XIX hasta estos comienzos del XXI.

Levantemos la mirada al cielo. Las cenizas de un volcán islandés dejó en dique seco a gran parte de la flota

aérea europea por espacio de varios días. Picados por la curiosidad, hemos entrado en el fondo documental de Eusko Ikaskuntza interesándonos por si hubiera habido **volcanes** en nuestra geografía. La búsqueda, en contra de lo que podía parecer, no ha sido infructuosa: “Las erupciones y las rocas volcánicas de las Vascongadas” es un texto de 1952 en el que el insigne geólogo Maximino San Miguel de la Cámara presenta los resultados de sus investigaciones en las provincias vascas desde finales de los años 20. Sus conclusiones demuestran una enorme actividad volcánica en nuestro suelo en tiempos del Secundario, cuyos restos

se pueden encontrar mirando bajo nuestros pies.

Algunos especialistas han visto en su cine la evocación de determinadas manifestaciones astrofísicas. Hablamos del artista **José Antonio Sistiaga**, en torno a cuya trayectoria se ha estrenado en el reciente Festival de Cine de Málaga un documental realizado por el bilbaino Josu Venero con el título *Tener el corazón en el lugar equivocado*. Referente internacional del cine de vanguardia por su largometraje pintado a mano *Ere erera baleibu icik subua aruaren*, Sistiaga concedió una entrevista en profundidad a *Euskonews* que rescatamos este mes.

SOL TARRÉS

Cementerios de las confesiones religiosas minoritarias en España

En España se desarrolla en la actualidad un complejo pluralismo religioso, sustentado tanto por la población autóctona como la procedente de los flujos migratorios internacionales. Esta situación conlleva la aparición de nuevas necesidades en la población, entre ellas la reivindicación de espacios adecuados de enterramiento ocupa un espacio significativo.

La preocupación por la muerte es una de las características intrínsecas a las distintas confesiones religiosas, y todas ellas disponen de una serie de rituales precisos relacionados con ella. Los budistas hacen hincapié en la “buena muerte” y el respeto al cuerpo en los primeros días del fallecimiento. Los protestantes y evangélicos prestan gran atención al trance del morir, pero no tienen reivindicaciones especiales en cuanto al enterramiento y/o cremación. Judíos y musulmanes disponen de prescripciones religiosas específicas y de obligado cumplimiento, por lo que constituyen los colectivos más reivindicativos en el tema. Así, en el



Acuerdo de Cooperación de 1992 que cada una de estas minorías firmó con el Estado Español, en su artículo 2, los cementerios están equiparados a un lugar de culto.

La concesión, o cesión de espacios, para cementerios confesionales de las minorías religiosas comienza a estar presente en la agenda política y es, junto con los espacios de culto, una de las problemáticas que se presentan en relación a la gestión de la diversidad religiosa en España. Estos espacios confesionales tienen una distribución irregular en todo el territorio español, así por ejemplo frente a los 9 cementerios musulmanes que hay en la comunidad autónoma andaluza, apenas encontramos uno en la comunidad madrileña.

También hay diferencias significativas en relación a la historia e implantación de los distintos espacios funerarios. En España tenemos cementerios históricos, algunos de ellos todavía en uso. Los cementerios denominados “ingleses” son los más antiguos, fechados en el siglo XIX y ligados a la presencia inglesa. También del siglo XIX es uno de los primeros cementerios evangélicos de españoles, concretamente de 1881 cuando se concede a la Iglesia Evangélica de Huelva una parcela junto al cementerio municipal, y que en la actualidad sigue en uso. También hay cementerios históricos judíos en uso (hay otros, como por ejemplo en Melilla, que data de 1848, hoy clausurado), como es el caso del cementerio judío de Sevilla, que data de 1923 y es una cesión que el rey Alfonso XIII concedió a la comunidad judía sevillana en compensación por haberle cuidado en una dolencia que padeció en esta ciudad. En la actualidad hay cementerios judíos en uso en nueve ciudades.

En relación a los musulmanes también existen diversos cementerios históricos creados por Franco durante la guerra civil, algunos de ellos han sido abandonados mientras que otros han retomado su uso original, como es el caso del cementerio musulmán de Sevilla o el de “Ar-Rauda” en Granada que se asienta en terrenos del Patronato de la Alhambra y del Generalife.

Un caso singular se presenta en la ciudad autónoma de Ceuta, donde existe desde hace muchos años un crematorio hindú; en él se incinera siguiendo el método tradicional en la India es decir, con madera y al aire libre. Se trata de una excepcionalidad ya que los hindúes en España, en general, incineran a sus fallecidos en los crematorios habilitados en los cementerios.

Tras esta visión rápida y muy general, cabe señalar que las reivindicaciones de las distintas confesiones de disponer de sus propios espacios funerarios constituyen no sólo una plasmación de la diversidad religiosa existente y del “notorio arraigo” de estas confesiones, sino que también ponen de manifiesto la reivindicación de pertenencia (familiar, comunitaria, nacional y, sobre todo, cultural) de los distintos creyentes.

“Ritos funerarios en el islam: la praxis entre los musulmanes de Sevilla”. – En: “Formas de religiosidad e identidades”. Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, 28. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2006; 429-446 pp.

Gertatu zen

Lehendakariorde baten heriotza

Muerte de un Vicepresidente

Mort d'un Vice-président

1920ko apirilaren 27an hil zen Pierre Broussain Salagoity, Ikaskuntzako Lehendakariordea. Hazparnen sortua 1859an, medikuntza ikasi zuen Parisen eta 1889an, jadanik doktore zela, sorterrian kokatu zen eta, orobat, bertako zinegotzia eta alkatea izan zen 1904tik hil artean. Euskaltzaindiaren hamabi kide sortzaileetarikoa izan zen eta euskararen batasunaren



Pierre Broussain Salagoity

defendatzaile handienetakotzat hartu ohi da.

Urteak ahaztua izan ondoren, 1978ko apirilaren 16an Hazparneko udalerriak, Euskaltzaindiarekin lankidetzan, merezitako herri omenaldia egin zion.

Hacia el II Congreso

Hace ahora 90 años, los preparativos del II Congreso absorbían la casi totalidad de los esfuerzos de la Sociedad. La Junta Permanente tributó un caluroso aplauso a los portavoces de las Comisiones Organizadoras al conocer el pormenor de lo que se estaba preparando. A saber, varias exposiciones, un festival de danzas



de Otsagabia, Luzaide y Leitza, conciertos de música vasca, una Guía del Congresista en Pamplona y excursiones a Estella, Olite, Javier y a “Saint-Jean-Pied-de-Port, donde aquel Consejo Municipal prepara un entusiasta recibimiento”.

Amén de esto, se anticipaba ya que como resultado del Congreso en Pamplona se establecería una Academia de Historia y otra de Jurisprudencia, “estudios ambos que cuentan en Navarra con tantos cultivadores y tradición fundamental”.

Stèle d'Andre-arriaga

A peine deux ans après sa naissance, Eusko Ikaskuntza était déjà une référence culturelle incontestable. Des



Iglesia de San Miguel (Estella), 1920

propositions pour l'expertise, la publication, l'acquisition de matériels ou pour la récupération d'oeuvre patrimoniales en danger arrivaient continuellement à son Conseil Permanent. Ainsi, en 1920 le danger que courait la pierre d'Andre-arriaga, une pierre en grès d'1,50 m. de hauteur située sur la route Irun-Oiartzun, fut dénoncé. Suite aux gestions de la Société, l'oeuvre –probablement une stèle funéraire en l'honneur d'une divinité indigène- a fini par trouver sa place dans une salle du Musée de San Telmo de Saint Sébastien.

Des actions comme celle-ci font partie travail quotidien d'Eusko Ikaskuntza durant toute cette première étape de sa vie.

Kultura Ereileak

IKER laborategia hitz gutitan

IKER (UMR5478), *Euskara eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea* deiturikoak, Bordele 3ko, UPPAko eta CNRSko euskara eta euskal testuen inguruko adituak biltzen ditu. Ikerketa gune honek 9 kide finko ditu egun, 5 bat kide behin behineko, eta 8 bat doktoregai. Horietaz aparte, IKER-ek baditu mundu osoko 15 bat ikertzaile lagun, ikerketa proiektuetan edo besterik gabe, ikerketa harreman jarraituen bitartez ikerketa guneari lotuak direnak. Bere egungo izaeran, erran nahi da *Unité Mixte de Recherche* (UMR) bezala, ikerketa gunea 1999an sortua izan zen, CNRS-ek horren eginkizuna Benat Oyharçabal ikerlariari eman zionean, Bordele 3 eta UPPAko

unibertsitateekin kolaborazioan. IKER-ek segida ematen dio hala ere lehenagoko Bordeleko unibertsitateak sustatu zituen CNRSari loturiko bestelako ikerketa guneei (URA eta UPRESA), Jean Haritschelhar-en lehenbizi eta gero Jean-Baptiste Orpustan-en babespean. Euskal ikasketa akademikoen sorburua, mugaz alde honetako Frantziako Euskal Herrian, René Lafon hizkuntzalari famatuak 1948an Bordeleko unibertsitatean ezartzea lortu zuen euskal ikasketen katedran dago.

IKER-eko ikertzaileek euskararen eta euskal testuen inguruko hainbat atzergai jorratzen dituzte. Oraintxe

abian diren proiektuen artean ondokoak aipa daitezke: hizkuntzalaritzaren alorrean, HIPVAL proiektuak populazio genetisten eta hizkuntzalarien arteko elkarlana bultzatzen du. Proiektuaren asmoa euskal banaketa dialektal zaharren eta populazio historiko desberdinen presentziaren balizko lotura aztertzea da, polimorfismo genetikoan azterketaren bitartez. Dialektologiaren esparruan, Sacaze proiektuak Julien Sacaze St-Gaudens-en jaiotako abokatuak pirinioetan XIX. mende bukaeran eginkako bilketa linguistikoak, euskarari dagokion partean, argitara ematen ditu. Euskal testuen

eremuan, aipatzekoak dira testu genetikaren bidetik abiatutako ikerketak. Bat aipatzearen, Jean-François Cerquand-ek XIX. mendean egin tradiziozko ipuinen bilketaren eta haien edizioaren prozesua argitzen dituen, eta ipuin tradizionalen kontzeptua bera berraztertzea behartzen gaituen.

Gerizak

CNRS, Institut Nationale des Sciences de l'Homme et de la Société.

Université Michel de Montaigne – Bordeaux 3. UFR des Etudes ibériques et ibéro-américaines


Université de Pau et des Pays de l'Adour, CURS.

Zuzendaria

Ricardo Etxepare (CNRS)



Argitalpenak



Arkeoikuskua 2008

ZENBAIT EGILE
GASTEIZ: EUSKO JAURLARITZA, 2009
466 OR. : IR. ; 29 CM.
ISSN: 0213-8921

Liburuki hau Euskadirako Gaztelu Egitasmoari buruzko txosten batekin hasten da, plan hori Eusko Jaurlaritzaren eta EHUko Arkitekturaren Arkeologiako Ikerketa Taldearen arteko lanaren emaitza izanik. Kontua da goi Erdi Aro eta Erdi Aro beteko gazteluei buruz gure lurraldean dagoen ezjakintasun handia betetzea. Jarduera plana hiru fasetan garatu da: bibliografia eta toponimia aztertzea, kata bidezko prospekzioa eta egiaztatzeak zundatzeak. *Arkeoikuskua 2008* liburukiaren zati handienak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan buruturiko 170 arkeologia interbentzioez dihardu, gehienbat hiri esparruan garaturiko landa lanak direlarik.



Dictadura y Desarrollo. El franquismo en Álava

AUTOR: ANTONIO RIVERA (DIR.)
VITORIA-GASTEIZ: AYUNTAMIENTO, 2009
379 P. : IL. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-96845-30-5

Los autores de este libro forman un Grupo de Investigación sobre el franquismo en Álava, que en proceso de preparación de sus tesis doctorales sobre las temáticas que aquí presentan, por lo que estos textos constituyen un anticipo de trabajos de mayor entidad. Se aborda la naturaleza y realidad del régimen en ese territorio desde diferentes perspectivas: la dinámica socioeconómica, la evolución de la conciencia histórica de la capital, las luchas intestinas en las instituciones locales del primer franquismo, el carácter y composición del Ayuntamiento vitoriano, la aportación de la mujer trabajadora al milagro industrializador, la conflictividad sociolaboral y la oposición política contra la dictadura.



Régimen económico de Comunicación Foral de Bienes (1687-1859)

AUTOR: ITZIAR MONASTERIO (DIR.)
VITORIA-GASTEIZ: GOBIERNO VASCO, 2009
2 TOMOS : IL. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-457-2963-2

Valioso trabajo de extracción, selección y recopilación sobre la Comunicación Foral de Bienes realizado por la doctora Itziar Monasterio Aspíri. Entendiendo que la principal fuente para el conocimiento de lo que fue realmente el Derecho civil de Bizkaia en la época foral se halla en los archivos notariales y judiciales, la profesora de Derecho Civil en la Universidad de Deusto ha acudido al Archivo Foral de Bizkaia, de donde ha extraído los documentos sobre comunicación foral anteriores al Código civil. Se transcriben 25 documentos judiciales, pertenecientes a los años 1687-1870. El volumen primero abarca la documentación de los años 1687-1859 mientras que el segundo corresponde a los años 1862-1870.



José Miguel de Azaola. El genio personalista

AUTOR: ADRIÁN CELAYA IBARRA (ED.)
BILBAO: ACADEMIA VASCA DE DERECHO, 2010
272 P. : IL. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-7752-464-5

Hay que trasladar, decía José Miguel de Azaola, el patriotismo al terreno de la racionalidad política y profundizar en el alcance y el significado que es capaz de llegar a poseer, si lo consideramos como algo que el patriotismo más profundo no puede dejar de ser: como civismo. De esta forma cierra Adrián Celaya Ibarra, coordinador de este volumen, su estudio introductorio sobre José Miguel de Azaola (1917-2007). Se recogen igualmente en esta edición los trabajos de Juan Aguirre, Alfonso Carlos Saiz Valdivielso y Mitzel Unzueta Uzcanga, destacados conocedores de la obra de José Miguel de Azaola y se incluye una edición facsimilar de su obra de juventud *Resumen Histórico de la Villa de Bilbao*.

ATEJOKA
020

MAIATZA
MAYO
MAI
2010



Argitaratzailea
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,
Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

Argitalpen Idazkaria
Eva Nieto

Argazkiak
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa

Harpidetzak
Atejoka etxean jaso nahi baldin
baduzu, idatzi edo dei egin ezazu
helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako
Bulego Nagusiak
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-30835
Fax 943-219356
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

Arabako Bulegoa
General Alava, 5-2º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-23152
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa
Pº de Urribarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4444650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

Nafarroako Bulegoa
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-219737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera 8:30-14
eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00-15:00

Horario
De lunes a jueves de 8:30-14 y de
15:30-17:30; viernes de 8:00-15:00

Iparaldeko Bulegoa
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 595958290
Fax 595468844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta
15:30-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundri au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00
et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-150-2008. ISSN: 1889-0342
Fotokomposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga